

ISSN: 2530-6561  
2021eko abendua  
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko  
Lankidetzeta eta  
Garapenari Buruzko  
Ikasketa Institutua

Universidad del  
País Vasco /  
Euskal Herriko  
Unibertsitatea  
UPV/EHU

## Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertzeke gakoak

M<sup>a</sup> Luz de la Cal Barredo



## Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertze gakoak

---

M<sup>a</sup> Luz de la Cal Barredo  
Universidad en el País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea  
luz.cal@ehu.eus

### Aurkibidea

1. Zergatik daude emakume pobre gehiago gizon pobre baino? .....	5
2. Zergatik da beharrezkoa generoaren ikuspegitik aztertzea pobrezia? .....	6
3. Ikuspegiak pobreziaren azterketan .....	8
3.1. Ikuspegi monetarioa .....	8
3.2. Ikuspegi subjektibo/parte hartzailea .....	10
3.3. Gaitasunen ikuspegia .....	10
3.4. Gizarte bazterketaren ikuspegia .....	12
4. Pobreziari eta gizarte bazterketari buruzko estatistiketan eta azterlanetan genero ikuspegia txertatzeko gomendioak .....	13
5. Bibliografia .....	17

## Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza  
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga  
Iker Etxano  
Mertxe Larrañaga  
Elena Martínez Tola  
Mikel Zurbano

---

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertzeo gakoak](#)

Egilea: M<sup>a</sup> Luz de la Cal Barredo

hegoak zabalduz - 23. zk. 2021eko abendua

ISSN: 2530-6561



[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

UPV/EHU. Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81  
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa  
Elhuyar Plaza, 2  
20018 Donostia-San Sebastián  
Tel. 943 01 74 64  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia  
138. posta-kutxa  
Nieves Cano, 33  
01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel. / Faxa: 945 01 42 87  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

---

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,  
Creative Commonsen lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratoririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>



Finantzatzailea:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

**Laburpena:** Azken hamarraldietan hainbat aldaketa izan dira gure gizartean, eta aldaketa horiek areagotu egin dute pobrezia eta gizarte bazterketa jasateko arriskua biztanle kolektibo ugarienetan. Azterketek egiaztatzen dute emakumeak talde nabarmenetako bat direla pobreen artean, mundu osoan. Horrek zerikusia du lanaren banaketa sexualarekin Baita etxeko lanek zein zaintza lanek jasotzen duten balio eskasarekin ere. Etxeko lanetan eta ordaindutako lanetan dagoen sexuen arteko banaketa asimetrikoaren ondorioz, emakumeak gizonen mende daude. Horregatik, mugatuta dituzte aukerez baliatzeko gaitasunak. Aukera gutxiago dituzte baliabide ekonomikoak lortzeko, eskubide sozialak edukitzeko, kredituak eskuratzeko, ordezkaritza politikoa eta boterea edukitzeko, etab.

Errealitate hori gorabehera (edo horren ondorioz), pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko azterketa askotan ez dago genero ikuspeirik. Erabilitako kontzeptuetan eta neurketetan, baita pobrezia aurka borrokatzeko politiketan ere, ez dira kontuan hartzen emakumeek eta gizonen ez dituztela ezaugarri, erantzukizun, bizitza esperientzia, aukera eta interes berberak.

Orrialde hauen helburu nagusia da berrikustea pobrezia azterketari dagokionez zer ikuspegi diren egokiak genero ikuspegia txertatzeko eta zehaztea horien mugak eta gaitasunak. Dimentsio anitzeko ikuspegiak, gaitasunen eta gizarte bazterkeriaren ikuspegiak, eremu ekonomikotik harago doaz, eta beste eremu batzuk hartzen dituzte kontuan: harremanen, hala nola harremanen, politikaren, osasunaren, kulturaren edo bizitegien eremuak. Horregatik dira egokiak generoa kontuan hartuko duen azterketa egiteko. Aitzitik, ikuspegi monetarioa da desegokiena, ez delako gai merkatuari lotuak ez diren alderdiak txertatzeko. Hala eta guztiz ere, zenbait egokitzapen metodologiko egin daitezke ikuspegi horretan, generoaren sentsibilitatea hobetzeko.

Egindako berrikuspenaren arabera, hainbat gomendio jasoko dira ikuspegi hori pobrezia buruzko azterlan eta estatistiketan txertatzeko. Azkenik, emakumeen pobrezia azterketan oso presente dauden kontzeptu teoriko batzuk aztertuko dira; edonola ere, kontuz erabili behar dira.

**Hitz gakoak:** pobrezia, gizarte bazterketa, generoa, etxeko buruzagitza femeninoa, pobrezia feminizazioa, ikuspegi intersektionala, pobrezia buruzko estatistikak

**Abstract:** In recent decades we have witnessed a series of changes in our societies that increase the risks of poverty and social exclusion among larger groups of the population. Analyses show that women are one of the most visible groups among the world's poor. This is related to the sexual division of labour and the undervaluing of domestic and care work. The asymmetrical gender distribution of domestic duties and paid work places women in a subordinate position compared to men. As a result, their ability to take advantage of opportunities is limited. They have less access to economic resources, to social rights, to credit, to political representation and power, and so on.

Despite this reality (or as a consequence of it), the gender perspective is largely absent from analyses of poverty and social exclusion. The concepts and measurements used, as well as anti-poverty policies, are established without taking into account the fact that women and men have different attributes, responsibilities, life experiences, opportunities and interests.

The main objective of these pages is to review the different approaches to the study of poverty in terms of their suitability for incorporating a gender perspective, pointing out their limitations and potential. Multidimensional approaches such as the capabilities approach and the social exclusion approach go beyond the economic sphere and consider other spheres such as relational, political, health, cultural or residential. They are therefore suitable

for gender-sensitive analysis. In contrast, the monetary approach is the least appropriate, due to its inability to incorporate non-market aspects. Nevertheless, some methodological adjustments can be made to this approach to improve its gender sensitivity.

In the light of this review, a number of recommendations will be made to incorporate such a perspective in poverty studies and statistics. Finally, some theoretical concepts will be examined which are very present in the analysis of women's poverty and which should be used with caution.

**Keywords:** poverty, social exclusion, gender, female head of household, feminisation of poverty, intersectional perspective, poverty statistics.

# 1. Zergatik daude emakume pobre gehiago gizon pobre baino?

Genero desberdintasunaren lehen oinarria lanaren banaketa sexuala eta mendebaldeko gizarteetan lanaren antolaketaren eta balorizazioaren atzean dagoen joera monetarista eta patriarkala dira. Horrek esan nahi du, alde batetik, merkatuko lana (eta, beraz, ordaindua) dela lantzat hartzen den bakarra; horren ondorioz, enpleguaren sinonimo bihurtzen da terminoa. Aldi berean, etxean egiten diren etxeko lanak eta zaintza lanak produkzio eremutik kanpo daude, eta, beraz, ez dira aintzat hartzen, ez balioesten ezta ordaintzen ere. Nahiz eta lan hori behar-beharrezkoa den giza bizitzak irauteko eta merkatu lanean beharrezkoa den lan indarra berproduzitzeko (Carrasco, 2014:17). Lan hori merkantilizatu egiten denean ere (enplegu bihurtzen denean), etxeko enplegua deiturikoan, gutxietsi egiten da, eta baldintza kaskarretan egiten da askotan, bai ordainsariei bai bestelako baldintzei dagokienez.

Bestalde, eta hemen elkar sendotzen dute kapitalismoak eta patriarkatuak, diru sarrerak lortzeko aukera ematen duen lana gizonei esleitu izan zaie tradizioz, eta zaintza lana, berriz, emakumeei (Pérez Orozco, 2014:56). Lanaren banaketa sexual klasiko hori (gizon hornitzaile publikoa/etxeko emakume zaintzailea) birformulatu egin da azken hamarkadetan, emakumeek presentzia handiagoa baitute enplegu ordainduari dagokionez. Hori bai, emakumeek kategoria, arduraldi eta/edo ordainsari txikiagoko lanpostuak betetzen dituzte. Horrela, ugalketa edo zaintza lanaren banaketa desberdinak mendekotasun harremanak sortzen ditu emakumeen artean, eta parte hartze txikiagoa eta okerragoa edukitzen dute lan merkatuan, enpleguen bereizketaren bitartez gizonen nagusitasunari eusten baitzaio (Hartman, 1994). Emakumeek enplegua eta zaintzak bateratzen dituzte (presentzia bikoitza), eta gizonek eta erakundeek, berriz, ez dute ia aldatu zaintzetan duten ardura kuota. Hori guztia oztopoa da emakumeek lan munduan gora egin dezaten, eta "zaintzen krisia" delakoa eragiten du.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen bigarren oinarria gizartearen ongizatea bermatzen duten akordio instituzionalak dira. Hainbat termino erabili dira horri buruz jarduteko: ongizate erregimenak, ongizate arkitektura, ongizatearen diamantea, zaintzaren diamantea (Razavi, 2007). Zaintza sareei buruz ere hitz egiten da, zeinak osatzen baitituzten zaintzaileek, zaintzaren hartzaileek, erakunde eragileek, arau esparruak eta araudiak, merkatuko partaidetzak eta komunitatearen partaidetzak (Rodríguez, 2015). Zaintzen diseinuari, finantzaketari eta hornikuntzari dagokionez eragileak nola erlazionatzen diren adierazten du: familiak, merkatua, estatua eta irabazirik gabeko sektorea.

Azpiarratu behar da Estatuak, ikuspegi kualitatibotik, bestelako jokabidea duela hiru eragile horien aldean. Alde batetik, estatu baliabideen banaketaren bidez, herritarren erantzukizunak eta eskubideak definitzen dituzte politikek. Kasu guztietan, politikek printzipio eta hipotesi jakin batzuei erantzuten diete. Printzipio eta hipotesi horiek bideratzen dituzte, esplizituki edo inplizituki, zerbitzuen eskaintza eta premia gisa definitzen denari estatuak ematen dion erantzuna (Esquivel et al., 2012:27). Bestalde, Estatuak, zerbitzuak eskaintzeaz gain, zaintzari dagokionez beste eragile eta erakundeek zer eskubide eta erantzukizun dituzten erabakitzen du. Adibidez, zaintzarako zerbitzu publikoak urriak direnean edo ondo finantzatuta ez daudenean, familiek bete behar dute hutsune hori. Azkenik, aipatu behar da gizarte politikek (edo halakorik ez egoteak) subjektibotasunean duten eragina, hots, araudiak gaitzen edo legitimatzen du zer pentsatu edo gauzatu litekeen, Estatuak legeen bitartez "hitz egiten" baitu. Hala, adibidez, kontziliazio politikak soilik emakumeei zuzentzen bazaizkie, zaintzen feminizazioa legitimatu eta errepikatzen da, eta gizonak arlo sinboliko eta materialetik enpleguaren mundura bidaltzen dira (Gaba eta Salvo, 2016).

Gizarte kapitalistetan, merkatuko erakundeek ez diete alderdi horiei jaramonik egin, eta familiek (emakumeek, zehazki) eskainitako ordaindu gabeko zaintza lana da lan indarra erreproduzitzeko oinarri nagusia. Gizarte politikei eta berdintasun politikei dagokienez Estatuaren jarduna ausartagoa izan den herrialdeetan, zaintza horren zati bat desfamiliarizatu egiten da, eta zerbitzu publikoen bidez egiten zaio kasu. Herrialde horietan, halaber, genero desberdintasunak txikiagoak dira.

Lanaren banaketa sexualak berak ahalbidetzen du zainketa lanen banaketa desberdina, eta deskribatutako erakunde arkitekturak, orobat, indartu egiten du. Horrek esan nahi du ordaindu gabeko zaintza lanak batez ere emakumeengan kontzentratzen direla, batez ere politika publikoen garapena txikia den herrialdeetan. Etxeko lanen banaketaren asimetriak desabantailan jartzen ditu emakumeak, gizonen

aldean. Eta, ondorioz, mugatuta dute partaidetza enpleguaren esparruan. Hori dela eta, halaber, aukera gutxiago dituzte ezagutza, etxebizitza, parte-hartze politikoa eta soziala, etab. lortzeko. Deskribatutako lanaren banaketa sexualak eta erakunde arkitekturak azaltzen dute, zalantzarik gabe, pobrezia eta gizarte bazterketak eragin handiagoa dutela emakumeengan, edozein dela ere hautatutako ikuspegia (sarrera, aukerak, eskubideak, gaitasunak).

Aipatzekoa da joera merkantilista eta androzentrikoen gain, deskribatutako ereduak familia eta emakume multzo bakar baten esperientzia unibertsalizatzen duela. Zehazki, familia nuklearretan eta hiriguneetan bizi diren emakume heterosexual, zuri eta klase ertainekoetakoena. Eta, aldiz, ikusezin bihurtzen da emakume ezkongabeen, ama bakarren, lesbianen, herri klasekoen eta landa eremuetan bizi direnen esperientzia (Pérez Orozco, 2014:58). Desberdintasun baldintzek ez diete berdin eragiten emakume guztiei: emakume batzuegan besteengan baino eragin handiagoa izango dute, adinaren, arrazaren, gizarte mailaren, sexu orientazioaren, diru sarrera mailaren, desgaitasunaren, erlijioaren eta abarren arabera.

## 2. Zergatik da beharrezkoa generoaren ikuspegitik aztertzea pobrezia?

Genero ikuspegia duten ikerketak positibismoaren krisiaren ondorioz sortu ziren, baina ikuspegi horren gaineko kritikak ez datoz soilik feminismotik. Paradigma positibistan, ezagutza absolutua eta egiazkoa posible dela uste da, eta orobat uste da ezagutza zientifikoko arauak aplikatuz lor daitekeela, datu empirikoetan oinarrituta alegia. Ideia horren aurrez aurre, zientzia produktu sozial bat dela adierazten da, zeina ez den mugatzen ustezko eta aurretiko errealitate bat azaltzera. Ez du rol neutroa betetzen gizartean; aitzitik, aurreiritzi sexistak, arrazistak, klasistak eta abar transmititzen eta legitimatzen dituen erakunde gisa jarduten du sarritan, eta eliteen (maskulinoak, zuriak, etab.) nagusitasunaren oinarri izan da eta da gaur egun oraindik ere (Díaz eta Dema, 2013: 72-73).

Genero ikuspegia txertatzen denean, metodoak eta teknikak aztertzen dira, zehaztu ahal izateko ea egokiak diren genero harremanak argitzeko eta joera sexistak saihesteko. Horrela sortzen den ezagutza zientifikoa ez dago maskulinizatutako balioek kutsatuta, kalitate handiagokoa da eta sozialki arduratsuagoa (Díaz eta Dema, 2013:66). Sexismoak ekitatezkoak ez diren genero harremanak hartzen ditu barnean, eta praktika instituzionalei eta pertsonen artekoen egiten die aipamena. Praktika horien arabera, genero talde nagusiko kideek (gizonek normalean) pribilegioak pilatzen dituzte beste genero talde batzuk mendean hartuta (emakumeak normalean), eta nagusitasunean oinarritutako ideologiaren, diferentzien edo sortzetiko desbideratzeen bidez justifikatzen dituzte praktika horiek (Mendez-Espina et al., 2020).

Generoa, lehenik eta behin, sexuen arteko desberdintasun errealean eta hautemanetan oinarritutako gizarte harremanen barruko elementua da, zeinak adierazten diren sinboloen, arauen, erakundeen, politiken eta identitate subjektiboen bidez. Genero ikuspegiak emakumeen eta gizonen ekintzak, elkarrekintzak, harremanak eta identitateak nabarmentzen ditu. Bigarrenik, generoa boterea adierazteko modu nagusia da. Horrela, genero ikuspegiak aldeak eta desberdintasunak sortzen eta iraunarazten dituzten faktoreak nabarmentzen ditu (Bennett eta Daly, 2014). Agerian uzten du emakumeek gizonenganako dituzten mendekotasun harremanak ez direla kasu isolatuak edo bikote kontuak, harreman sistemikoak baizik. Harreman asimetrikoak dira, ez rolen osagarritasunari dagozkionak, baizik eta esplotaziokoak, diskriminaziokoak, mendekotasunekoak. Hori ahazteak ikusezin bihurtzen ditu genero harremanek dakarten desberdintasun soziala edo egiturazko indarkeria (Brunet et al., 2008:70).

Pobrezia buruzko azterketek eta ikerketek erakutsi ohi dute emakumeek gizonen baino baliabide eta aukera gutxiago dituztela. Edozein dela ere une historikoa, lekua edo erabilitako neurketa metodologia, ukaezina da pobrezia, zaugarritasunak eta/edo gizarte bazterkeriak eragin handiagoa duela emakumeengan. Horixe litzateke generoarekiko sentibera den pobrezia azterketa aldarrikatzeko lehen argudioa. Bidezkoa da babesgabetasun handieneko egoeran dauden pertsonen egoera onartzea eta pertsona horien jantzea arreta. Genero ikuspegia kontuan hartuta, onartzen da emakumeek eta gizonen ez dutela modu berean jasaten pobrezia. Era horretara, hobeto ulertu eta galaraziko dira pobrezia egoera horretara eramaten dituzten prozesuak.



Pobrezia genero ikuspegiarekin aztertzearen aldeko bigarren argudioak pobrezia buruzko analisien eta azterketen helburuari egiten dio erreferentzia. Beste edozein azterketa sozioekonomiko bezala, pentsatzekoa da errealitate soziala ezagutzeko, horren kausak aztertzea eta, azkenik, gizartea eraldatzeko proposamenak egitea dela azterketa horren xedea. Pobrezia azterketan funtsezko lau gai daude elkarri lotuta: kontzeptuak eta definizioak, neurketak, azalpenak eta politikak. Pobrezia hartzen duguna pobrezia buruz egin nahi denaren edo egitea espero denaren arabera da neurri batean; beraz, pobrezia buruzko eztabaida akademikoa eta politikoa, deskriptiboa ez ezik, aginduzkoa ere bada. Pobrezia kontzeptu politikoa da ezinbestean, ez da neutrala (Monreal, 1996). Emakumeek eta gizonek ezaugarri, erantzukizun, bizitza esperientzia, aukera eta interes berberak ez dituztela kontuan hartu gabe hurbiltzen bagara pobrezia azterketara, ez gara gai izango pobrezia gizarte batean duen benetako eragina aintzat hartzeko, eta are gutxiago hori eragiten duten faktore nagusiak ezagutzeko. Era berean, pobrezia aurre egiteko proposatzen ditugun estrategiak ez dira eraginkorrak izango biztanleriaren zati batentzat.

Emakumeek gizonen aldean jasaten dituzten desberdintasun nabarmendu nahi dira genero ikuspegiaren bitartez. Desberdintasun horiek, halaber, oztupoa dira bizi kalitate hobea edukitzeko, autonomia handiagoa lortzeko eta herritar gisa dituzten eskubideak baliatzeko. Bi dira desberdintasun nagusiak. Alde batetik, produkzio baliabideak edukitzeko, erabiltzeko eta kontrolatzeko buruzkoak dira (lana, lurra, kapitala, prestakuntza, informazioa, teknologia berriak, baliabide naturalak eta etxebizitza), eta horrek azaltzen du emakumeek diru sarrera egokiak lortzeko dituzten mugak. Bestalde, azpimarratu behar da boterera iristeko dauden desberdintasunen ondorioz, emakumeek gizonek baino gutxiago parte hartzen dutela erabaki ekonomikoak eta politikoak hartzeko prozesuetan, bai etxean, bai gizartean oro har. Horrek esan nahi du haien interesak eta ikuspuntua kontuan hartu gabe diseinatzen direla programak eta politikak.

Sistema patriakalen alborapen sexistek genero desberdintasunak iraunarazten dituzte eta era berean ezagutza zientifikoaren oinarriak eraikitzen dituzte. Joera horietako batzuk bereziki desitxuratzailak dira pobrezia azterketan, ezkutatu egiten baitute emakumeek zer-nolako desabantailak dituzten, baliabideak eta aukerak eskuratzeko (Eichler, 1991, Díaz eta Dema, 2013):

- Androzentrismoa, zeinak aztergai hartzen duen gizonezkoen dagozkien ezaugarriak dituen pertsona. Gizonek dira erreferentzia, eta emakumeak "besteak". Emakumeen arazoak eta esperientziak arindu egiten dira, eta balio handiegia ematen zaie gizonenei. Feministek pobrezia aztertzen lagundu aurretik uste zen biztanleria pobrea gizonek osatzen zutela osorik, edo, bestela, ziurtzat jotzen zen emakumeen premiak eta interesak etxeko nagusi gizonen berberak zirela, eta, ondorioz, haien mende jar zitezkeela (Kabeer, 1998).
- Gehiegizko orokortzea; ikerketa baten emaitzak bi sexuei aplikatzeko modukoak balira bezala orokortzen ditu.
- Generoarekiko sentiberatasunik eza, sexua ez baita aldagai garrantzitsutzat hartzen azterlanean, eta ez baita zalantzan jartzen sexuak emaitzetan duen eragina. Oro har, ez dute aztertutako fenomenoaren eraginari buruz sexuaren arabera bereizitako daturik ematen. Alde batera uzten du, halaber, aldagai batzuek esanahi desberdina izan dezaketela gizonentzat eta emakumeentzat (dirua, ezkontza, dibortzioa, etxea).
- Familismoa, analisi unitatetzat familia edo etxea hartzen duena, hura osatzen duten pertsonak, haien rola, portaerak eta haien arteko botere harremanak kontuan hartu gabe. Oinarri hartzen du aztertutako gertaerak berdinean eragiten dietela familiako kide guztiei.

### 3. Ikuspegiak pobreziaren azterketan

Azken hamarraldietan, ikerketaren esparruak eta aktibismo feministak lortu dute generoaren dimentsioa onartzea pobreziaren azterketan. Gainera, fenomeno konplexu horren azterketak zabaldu egiten ditu bere mugak, alderdi ekonomiko eta materialetatik hasi eta bizitzaren hainbat eremu eta giza aniztasunari lotutako osagai subjektiboak kontuan hartzen dituztenetaraino. Horrek aberastu egin du oro har pobreziaren fenomenoaren azterketa, errentan edo kontsumoan oinarritutako ikuspegi estu batetik dimentsio anitzeko ikuspegi batera igarotzea ahalbidetu baitu. Era horretara, aintzat hartzen dira gabezia fisikoa eta materiala nahiz gabezia soziala, zeinaren barruan sartzen diren hainbat faktore, hala nola autoestimua, errespetua, boterea eta zaugarritasuna (Chant, 2003). Zalantzarik gabe, ikuspegi holistikoagoetaranzko bilakaera hori ere laguntza handikoa izan da genero ikuspegi txertatzeko pobreziaren, gabeziaren eta gizarte bazterketaren analisisetan. Ondoren, pobreziaren azterketan genero ikuspegi txertatzeari dagokionez ikuspegi bakoitzak zer abantaila eta eragozpen dituen aipatuko dugu.

#### 3.1. Ikuspegi monetarioa

Ikuspegi horretatik muga monetario bat jartzen da (errenta edo gastua), eta pobretzat jotzen da bere premiak asetzeko gutxieneko bizi mailara iristeko baliabide nahikoak ez dituenak. Oro har, pobrezia aztertzeko diru neurketa hartzen bada abiapuntu, orduan, pobrezia lerroen neurketa erabiltzen da. Bi modutara ezartzen dira lerro horiek:

- Erabatekoa: premiazkotzat jotako ondasunen saski jakin baten kostuan (gutxieneko aurrekontua) edo diru kopuru jakin batean kokatzen da pobrezia lerroa<sup>1</sup>.
- Erlatiboa: erreferentziatzat hartutako gizartearen errentaren edo batez besteko gastuaren edo gastu medianaren ehuneko jakin batean ezartzen da pobrezia lerroa<sup>2</sup>. Hainbat atalase erabili ohi dira (diru sarreren edo gastuaren ehunekoak) pobrezia larria eta moderatua bereizteko. Kasu askotan, pobrezia larriarentzat errenta medianaren % 40ko atalasea ezartzen da, eta pobrezia moderatuarentzat %60koa. Pobrezia larria oinarritzko premiak (elikadura, jantziak, oinetakoak, ostatua) ezin ase diren egoerarekin lotzen da. Aldiz, pobrezia moderatua esan nahi du pertsonak ezin dutela komunitatean bete-betean parte hartu, ezin dituztela lortu zereginak betetzeko, harremanetan parte hartzeko eta gizarteko kide gisa espero diren ohiko jokabideei jarraitzeko aukera ematen dieten bizi baldintzak (Townsend, 1993).

Pobrezia neurtzeko metodologia hori erraz erabili izan da eta erabiltzen da oraindik ere, abantaila batzuk baititu, hala nola sinpletasuna, erabilitako neurri unitatearen familiaritatea eta datuen eskuragarritasuna. Hala ere, arazo ugari sortzen ditu, eta ez dagozkio soilik generoarekiko sentiberatasunik ezari<sup>3</sup>. Orrialde hauetan adieraziko dugu arazo horien zein alderdi diren esanguratsuenak genero ikuspegi pobreziaren azterketan txertatzeari begira.

Lehenik eta behin, pobrezia edo ongizate egoera ebaluatzeko kontuan hartzen diren baliabideak errentaren kontzeptu estu samarrera mugatu ohi dira. Pobrezia ikuspegi monetario baten arabera neurtzen denean, alde batera uzten dira pertsonen ongizate mailak baldintzatzen dituzten zenbait baliabide, zeinek garrantzizko eragina duten emakumeek eta gizonek jasaten dituzten pobrezia zametan. Esate baterako, osasun zerbitzu

- 
- 1 Gutxieneko aurrekontuan oinarritutako pobrezia neurketa horiek AEBetako eta Kanadako pobrezia lerroa kalkulatzeko erabiltzen dira. Munduko Bankuak ere pobrezia lerro absolutuak ezartzen ditu: 1,90 \$ pertsonako eta eguneko, muturreko pobreziari dagokionez; 3,2 \$ diru sarrera ertain-baxuko herrialdeetarako eta 5,5 \$ diru sarrera ertain-altuko herrialdeetarako.
  - 2 EBn pobreziari buruz egiten diren azterlan gehienetan termino erlatiboen arabera pobrezia neurketa erabiltzen da.
  - 3 Pobreak ez izateko ase behar diren premiei eta behar horiek asetzen dituzten ondasunei buruzko arazoak (Sen, 1992a eta 1992b); pobrezia atalasea non ezarri zehazteko arazoak (Concialdi, 2002); Familia Aurrekontuei buruzko Inkestetatik datozen datuen fidagarritasunari buruzko arazoak (Martínez eta Ruiz-Huerta, 1994).

publikoak, hezkuntza zerbitzuak edo mendekotasunen bat duten pertsonak zaintzeko zerbitzuak ez dira kontuan hartzen, nahiz eta berebiziko garrantzia duten ongizatean<sup>4</sup>. Gainera, zerbitzu horietako batzuek (zaintzari dagozkienek batez ere) eragin handiagoa izan dezakete emakumeen ongizatean.

Ahaidetasun, adiskidetasun eta auzotasun sareen bidez sortzen den kapital soziala da etxe baten egoera ebaluatzeko kontuan hartu beharko litzatekeen beste baliabideetako bat. Elkarrekikotasun sareek baliabide monetarioak sor ditzakete, edo lan esparruan parte hartzeko aukera erraztu. Azken hori erabakigarria da seme-alabak dituzten emakumeen kasuan, horiek lan munduan sartzeko aukera hurbileko familiaren, auzokoen eta adiskidetasun sareen laguntzaren mende egon baitaiteke (zaintzarako zerbitzu publikoak urriak direnean, esaterako). Sare horiek, halaber, bizirik irauteko bitartekoak eman ditzakete, enpleguak eta gizarte babesak huts egiten dutenean.

Bigarrenik, etxeko zereginetan eta zaintzan emandako denbora etxeko ongizatearen hobekuntzari laguntzen dion baliabide monetarioa da. Etxe batean emakume batek ordainsaririk gabe egiten dituen zeregin horiek, etxe horretan ez zaio kanpoko norbaiti ordaindu behar, eta, beraz, errenta handiagoa edukiko du. Etxeko lanei eta zainketei egotzi dakieke balio bat, merkatuan kontratatzeak zer kostu izango lukeen kontuan hartuta. Hori lotuta dago emakumeek etxean egiten duten funtsezko ekarpena neurtzearen garrantziarekin. Eta agerian gelditzen da zer alde dagoen, ongizateari dagokionez, gizon bat buru duten eta emakume bat ordaindu gabeko zeregin horietan aritzen den etxeen eta errentaren zati bat zerbitzu horiek erostera bideratu behar duten etxeen artean. Ordaindu gabeko lana neurtzeko eta ikusteko beste modu bat lan horretan emandako denbora esleitzea da<sup>5</sup>. Horrela, gizarteak familian eta gizartean dauden genero desberdintasunak balioetsi eta hauteman ditzake (Godoy, 2004: 26-27).

Hirugarrenik, pobrezia buruzko azterlanen azterketa unitatea etxea izaten da oro har, etxea harturik bizileku, aurrekontu eta gastu unitatetzat. Azterketa unitate hori hautatzeko, beste portaera ekonomiko eta sozial askotan bezala, oinarri hartzen da familiak garrantzizko eragile ekonomikoak direla gastuari eta kontsumoari dagokienez. Gainera, unitate horietan gizabanakoek baliabideez hornitzeko dituzten estrategiek lotura handia dute elkarren artean. Hala ere, etxea azterketa unitatetzat hartuz gero, ikusezin bihurtzen dira pobrezia potentzialeko edo zaurgarritasuneko egoerak kolektibo jakin batzuetan, hala nola familiaren etxetik emantzipatu gabe dauden gazteak, erretiro pentsio eskasak kobratzen dituzten adineko pertsonak eta lan ordaindua egiten ez duten emakumeak. Sarritan, ez-pobretzat hartzen dira horiek, etxea ez delako pobrea. Baina diru sarrera propiorik ez dutenez, familia hausten denean (banantze edo heriotza baten ondorioz) edo, gazteen kasuan, familiarenetik emantzipatzen direnean larriak izan daitezke ondorio ekonomikoak (Godoy, 2004).

Valls eta Belzuneguiaren lanak (2014) bi metodologiak erabiltzen ditu Espainian pobrezia neurtzeko: konbentzionala (etxea azterketa unitate gisa hartuta) eta autonomia indibidualean oinarritua. Emaitzak alderatuz gero, lehen metodologiarekin nolabaiteko antzekotasuna dago emakumeen eta gizonen artean, pobrezia mailari, intentsitateari eta diruaz bestelako gabeziei dagokienez. Baina bigarrenaren bidez argi ikusten da pobrezia arrisku handiagoa dutela emakumeek: ia erdiak pobreak lirarteke bakarrik biziko balira; arrisku hori handitu egiten da hurrekin bizi diren familietan; ikasketa maila handiagoak eta lan merkatuan egoteak babestu egiten ditu emakumeak pobrezia aurrean, baina eragin mugatua du horrek parekatze estrategia egokirik ez badago; emakumeek transferentzia publikoetarako aukera mugatuagoa dute.

Gaineratu beharra dago banakako diru sarreren neurketa bereziki argigarria izan daitekeela pobrezia egoerak ebaluatzeko, baldin eta etxe batean diru sarrerak ez badira behar bezala banatzen etxeko kide guztien premiak asetzeko. Pobrezia etxeen arabera neurtzen dugunean, oinarritzat hartzen ari gara unitate horietan ez dagoela arazorik, desantolaketarik, botere harremanik, asetzeko premia desberdinik. Hala ere, emakumeek gure gizarteko erakunde askotan pairatzen duten mendekotasuna, erabakitze gaitasunik eza eta baliabideak eskuratzeko gaitasunik eza etxearen eremuan ere gerta daitezke, testuinguru jakin batzuetan batez ere (CEPAL-UNIFEM, 2004: 20-21).

---

4 Zerbitzu mota horiek sartzea edo ez garrantzizkoa izan liteke zerbitzu horietarako diru publikoari dagokionez alde handiak dauden lurraldeen pobrezia tasak konparatzen direnean.

5 Kasu honetan, egilea ordaindu gabeko lanari buruz ari da, ez bakarrik etxeko lanari eta zaintzari buruz.

## 3.2. Ikuspegi subjektibo/parte hartzailea

Mota horretako metodologiak saiatzen dira ikerketan parte hartzen duten pertsonak beren planteamenduak azaltzen dituzten subjektu gisa sartzan, eta ez soilik azterketa objektu gisa. Horrek abantailak ditu generoaren ikuspegitik, pobreak jotako pertsonak ongizateari buruz duten pertzepzioa erants daitekeelako. Agian, pertzepzio hori ez dator bat pobrezia buruz ikertzen ari den pertsonaren pertzepzioarekin, ez baita pobrea, ezta emakumea ere.

Elementu subjektiboak edo parte hartzaileak txertatzeak bi abantaila ditu generoaren ikuspegitik:

- Azterketek erakutsi dute emakumeek eta gizonek kezka eta interes desberdinak dituztela etxerako funtsezkoak diren oinarrizko premiei edo zerbitzuei dagokienez.
- Diru sarrerak baino askoz harago dauden ongizate alderdiak aintzat har daitezke, hala nola baliabideen kontrola, etxean erabakiak hartzeari dagokionez dauden desberdintasunak, denbora pobrezia<sup>6</sup> eta etxeko indarkeriarekiko zaurgarritasuna<sup>7</sup>.

Ikuspegi subjektibo/parte hartzaileak baliagarriak izan daitezten emakumeek eta gizonek ongizateari buruz dituzten ikuspegiak antzemateko, beharrezkoa da genero arauak ez egotea sakon errotuta aztertutako komunitatean, ezta ikerketa taldean ere.

- Horrek eragin dezakeelako emakumeek genero etena ezkutatu edo minimizatzea (Chant, 2003). Orduan, emakumeek berek zalantzarik gabe onartzen dituzte egoera bidegabeak honako alderdi hauei dagokienez: zer gasturi ematen zaion lehentasuna etxean, zer premiari erantzuten zaion edo etxeko zereginetan dauden desberdintasunak.
- Ikerketa taldeari dagokionez, datuak interpretatzeko eta eransteko duten gaitasunaren arabera, galerak egon daitezke generoaren ikuspegitik garrantzitsua den informazioa biltzeko eta/edo transmititzeko (Kabeer, 2006).

Askotan, ikuspegi subjektibo/parte hartzailea ikuspegi monetarioarekin konbinatzen da. Pobreak ez izateko edo hilaren amaierara<sup>8</sup> iristeko etxe batean beharko litzatekeen errenta aztertzen da. Hala ere, ikuspegi horrek emakumeen eta gizonen pobrezia bizipenei buruz garrantzizko informazioa eman dezan, hobe da metodologia kualitatiboak ezartzea, adibidez, elkarrizketa sakonak.

## 3.3. Gaitasunen ikuspegia

Amartya Senek honela definitzen du pobrezia: pertsonak gutxieneko maila onargarriak lortzeko dituen oinarrizko gaitasunen porrota. Pobreziaz eta bizi mailaz hitz egitean, ez da ez ondasunetan, ez haien ezaugarrietan, ez sortzen duten erabilgarritasunean zentratu behar, Senek pertsonaren gaitasuna esaten dion horretan baizik. Ondasunak edo haren ezaugarriek ez digute esaten pertsonak harekin zer egin dezakeen, bizi mailan lagun badezake ere, ez da haren erantzule. Garrantzitsuena da ezagutzea zer trebetasun dituen pertsonak ondasun hori erabiliz askotariko gauzak egiteko, funtzionamendu jakin batzuk lortzeko, eta

---

6 Emakumeek denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan eta zaintzan, eta ondorioz, emakumeak etxean giltzapetzen dira. Horrek harremanen ikuspegitik pobretu ditzake, edo politikan eta gizartean duten parte hartzea murriztu. Beren buruari emandako denboraren prekarizazioa ere badakar, eta horrek bereziki eragiten die ekonomikoki autonomoak diren subjektuen eraketan (Baeza et al., 2014).

7 Indarkeria pobretzearen faktore gisa aztertzeko, interesgarria da kontsultatzea Espinar (2002).

8 1986. urteaz geroztik Euskadin egiten den Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan (PGDI), honela definitu behar da etxea: oso pobrea, pobrea, nahiko pobrea, ahal bezala konpontzen da, eroso, oparoa, aberatsa eta oso aberatsa. Gainera, etxeei galdetzen zaie zenbateko diru sarrerak behar dituzten hilaren amaierara iristeko eta oinarrizko premiak asetzeko. INEK egiten duen Bizi Baldintzei buruzko Inkestan ere egiten da hori.

trebetasun hori litzateke aipatutako gaitasuna (Sen, 1983, 1992a eta 1992b). Martha Nussbaum-ek oinarritzko gaitasunen zerrenda bat proposatzen du (Nussbaum, 2000: 231-233). Eta adierazten du hezkuntzarik gabeko emakumeek eta emakume zapalduak esan dezaketela, edo pentsa dezaketela, gaitasun horietako batzuk ez direla beraientzat.

Gaitasunen porrot gisa hartutako pobreziaren kontzeptuan, genero ikuspegia txertatzeko aukera ematen duten bi ezaugarri aipatu behar dira:

- Agerian uzten du, baliabideen ikuspegi estutik ere, zenbait heterogeneotasun kontuan hartzen ez badira, baliabide ezak ez duela pobreziaren arazoaren parte bat ere jasoko. Heterogeneotasun horien ondorioz, beharrak ez dira denentzat berdinak. Zerikusia dute ingurumenarekin, giro sozialarekin, gizarte harremanekin, trebetasun eta inguruabar pertsonalekin eta osasun egoerarekin. Baliabide maila jakin batek ez dakar pobrezia saihestea –lorpenak eta funtzionamenduak lortzeko gaitasun gisa hartuta pobrezia–. Adibidez, pertsona batek etxeko indarkeria jasaten badu edo ez badu etxeko aurrekontuaren kudeaketan eragiteko gaitasunik, pertsona hori pobretzat jo daiteke, nahiz eta objektiboki diru sarrera nahikoak izan.
- Adierazten du munduaren zati handi batean emakumeek giza bizitzaren funtzionamendurako laguntza falta dutela. Funtzionamendu horiek izan litezke fisikoki oinarritzkoak (behar bezala jantzita eta elikatuta egotea, esaterako) edo konplexuak (emozioak sentitzea, zentzumenak erabili ahal izatea, imajinatzea, pentsatzea, arrazoitzea). Horrek esan nahi du emakumeek gizonen baino aukera gutxiago dituztela beldurrik gabe bizitzeko eta maitasun mota atsegingarriez gozatzeko, bereziki ezkondata daudenean eta haurtzaroan aukerarik ez dutenean (Nussbaum, 2000: 219-220).

Ikuspegi horietan oinarrituta, pobrezia gaitasunen porrotean oinarrituta neurtzeko adierazleak proposatu ditu GNBPK, hala nola Ahalmenen Pobreziaren Indizea (API) eta Giza Pobreziaren Indizea (GPI)<sup>9</sup>. Ondoren, GNBPK Generoari buruzko Garapen Indizea (GGI) eta Generoa Sustatzeko Indizea (GSI) proposatu zituen, genero ekitaterik ezak giza garapenean (GGI) eta jarduteko gaitasunean duen eragina neurtzeko (GSI)<sup>10</sup>. Indize horiek tresna osagarri garrantzitsuak dira genero arrakalak aztertzeko eta gobernuen arreta erakartzeko, eta horrek eragina izango du, inondik ere, genero desberdintasunari aurre egiteko neurrietan (Chant, 2003:30).

---

9 KPIak aurreikusten dituen gaitasunak hauek dira: bizimodu osasungarria izatea, elikadura onarekin; segurtasun baldintzetan eta baldintza osasungarrietan ugaltzeko gaitasuna izatea, eta alfabetatuta egotea eta ezagutzak izatea. Honako hauek dira alderdi horietan gaitasun gabeziak neurtzen dituzten hiru adierazleak: pisu nahikoa ez duten bost urtetik beherako haurren ehunekoa, langile trebatuen laguntzarik jasotzen ez duten erditzeen ehunekoa eta alfabetatu gabeko 15 urteko edo hortik gorako emakumeen ehunekoa. GPIk bizi luzerari, hezkuntzari eta osasun zerbitzuak eta edateko ura edukitzeari buruzko adierazleak eransten ditu, 5 urtetik beherako artean, herrialde garatuak izan ala ez. Azpimarratu behar da GPIk, KPIari dagokionez, baztertu egiten dituela emakumeari erreferentzia esplizitua egiten zioten adierazleak. Horrela, KPIan analfabetismoa neurtzen da, sexuari dagokion bereizketarik egin gabe, eta ezabatu egin da baldintza desegokietan gertatutako erditzeen ehunekoa (Dubois, 2000).

10 GGIk gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna zigortzen du, halako eran non balioa galtzen duen gizonen eta emakumeen aurrerapen maila orokorra jaisten denean edo batzuen eta besteen arteko aurrerapen maila handitzen denean. Giza Garapenaren Indizearen aldagai berak erabiltzen ditu, baina emaitzak egokitzen ditu, emakumeek eta gizonen osasun, hezkuntza eta sarrerako oinarritzko gaitasunak lortzean duten aurrerapenaren arteko desberdintasunarekiko sentibera izateko. Herrialde guztietan jaitsi dira GGIlaren balioak Giza Garapenaren Indizearekin alderatuta, eta horrek esan nahi du guztietan dagoela desberdintasun mailaren bat; izan ere, gizonen eta emakumeen arteko erabateko parekatzea gertatuz gero, GGIlaren eta Giza Garapenaren Indizearen balioak berdin-berdinak izango lirarteke.

GGIlaren helburua da partaidetza ekonomiko eta politikoaren eta erabakiak hartzearen funtsezko esparruetan hautematea genero desberdintasuna. Horretarako adierazle hauek erabiltzen dira: a) partaidetza ekonomiko eta erabakiak hartzeko ahalmena islatzeko: emakumeek eta gizonen administrazio postuetan eta postu exekutiboetan duten partaidetzaren ehunekoa eta enplegu profesional eta teknikoetan duten partaidetzaren ehunekoa; b) partaidetza politikoa jasotzeko: emakumeen eta gizonen ehunekoa parlamentuko eserlekuetan (Dubois, 2000).

### 3.4. Gizarte bazterketaren ikuspegia

Gizarte bazterketa terminoa 80ko hamarkadaren amaieran sortu zen, eta saiatzen da gizarte bazterketa beste kontzeptu zahar batzuetatik bereizten, hala nola pobrezia eta gabezia, eta orobat saiatzen da pobrezia oinarrian dauden alderdi dinamikoak areagotzen eta finantza pobrezia dagokionez kontzeptu ez hain unidimentsionala sortzen (Berghman, 1995:16). Termino horren ospe gero eta handiagoa XX. mendearen amaieran sortutako gizarte banaketaren eredu berriak ulertzeko eta interpretatzeko ahalegina da: enplegu/langabezia eredu aldaketa; Ongizate Estatuaren hornidura aldaketak; mugikortasun geografikoaren eredu aldaketak; eta eskubide eta betebeharrak zibil aniztetarako hautagarritasunaren definizio aldaketak. Gizarte bazterketaren hazkundearekin zerikusia duten goranzko joera batzuk identifikatzen dira, hala nola langabezia eta azpienplegu tasa handiak, eskulana edukitzeko aukeren murrizketa erabatekoa eta erlatiboa, lepo zuriko lanaren hazkundera, emakumeek ordaindutako lanean duten parte hartzearen hazkundera, lanaren barruan eta lanetik kanpo berrikuntza teknologiko sofistikatutakoak sartzea, etab. (Littlewood eta Herkommer, 1999:2).

Pobrezia gehiago identifikatzen da banaketari dagozkion alderdiekin, eta gizarte bazterketak erreferentzia egiten die, aldiz, harreman alderdiei, parte hartze sozialaren desagokitasunari, gizarteratzearen edo boterearen gabeziari edo eskubide sozialen ukazioari (Room, 1995). Ez da soilik pobrezia ekonomikoa, ezta muturreko pobrezia ekonomikoa ere. Oztopo eta muga pilaketa bat da, zeinak bizitza sozial nagusian parte hartetik kanpo uzten baitituen hura pairatzen dutenak.

Kontzeptu batek emakumeen egoera eta genero desberdintasunaren izaera aztertzeko balio dezan garrantzitsutzat hartzen den irizpideetako bat ikuspegi ulerbera edukitzeko gaitasuna da. Ikuspuntu horretatik, gizarte bazterketaren kontzeptuak garrantzizko indarguneak ditu; izan ere, bizitzaren hainbat eremu onartzen eta balioesten ditu, arlo ekonomikoaren eremu estuaz gain, eta prozesuen eta harremanen arteko mendekotasuna iradokitzen du. Pentsamendu feministak monopolioaren paradigman oinarritutako gizarte bazterketaren diskurtsoaren bide beretik jo du<sup>11</sup>. Eta horrek aldatu egin du arreta gunea: ekonomiaren zereginetik eta banaketaren alderdietatik botere harremanen esparru sinboliko eta kulturalera aldatu du (Daly eta Saraceno, 2002: 95-96).

1995eko Gizarte Garapenari buruzko Munduko Goi Bileraz eta Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentziaz geroztik, emakumeen pobrezia iraunkortasuna eta garrantzia tresna kontzeptual argiek azaltzen duten mekanismo konplexuei heltzeko beharra azaldu zen. Gizarte bazterketaren kontzeptuak bazterkeriaren eta generoaren ikuspegiak elkar aberasten dituzten elementu garrantzitsuak ditu. Horien artean nabarmentzekoak dira honakoak (Clert, 1998):

- Alderdi materialez gain, alderdi soziokulturalak eta politikoak baliatzea. Dimentsio soziokulturalaren barruan dago sare sozialetan parte hartzea, pertsonen erakundeekin harremana edukitzea eta kultura nagusian ez parte hartzea. Dimentsio politikoak hartzen ditu, bestalde, gizarte bateko kideen arteko desberdintasunak, eskubide zibil, politiko eta sozialak barne. Bi alderdi horiek txertatuz gero hauteman daiteke zer harreman dauden pobrezia eta erakundeetan ez parte hartzearen edo eskubideak ez aitortzearen artean.
- Baina, horrez gainera, eta alderdi berri gisa, aipatu behar da gizarte bazterketaren ikuspegiak analisi estatikoak ez ezik, dinamikoak ere egiten dituela. Hainbat eremutan gauzatutako bazterte prozesuak eta praktikak hartzen ditu kontuan. Era horretara, merkatuek, erakundeek, enpresek, Estatuak eta lurraldeak emakumeengan bazterketa prozesuak nola sortzen dituzten aztertzen du. Emakumeek gizonek baino errenta txikiagoa dutela egiaztatetik harago doa ikuspegi hau. Eta agerian uzten du zer mekanismo eta prozesuren bitartez iristen diren emakumeak gabezia eta desabantaila ugari izatera gizonen aldean.

---

11 Paradigma horren arabera, pobrezia aurka borrokatzeko, ongizateaz gain, boterea ere banatu behar da. Gizarte bazterketaren hiru paradigmei buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero (monopolioa, espezializazioa eta integrazioa), ikus Levitas (1998).

Gizarte bazterketaren diskurtsoak generoaren ikuspegitik dituen mugei dagokienez, bi dira nabarmentzekoak (Daly eta Saraceno, 2002: 97-99):

- Hierarkia bat dago eremuei dagokienez. Familiaren eremua, berez, ez da nahikotzat jotzen gizarteratzea lortzeko, baina ordaindutako lanaren eremua, berriz, bai. Familiako kide izate hutsa ez da gizarteratzea lortzeko bitarteko bat, eta bakarrik bizi diren amei aplikatzen zaie hori. Aldiz, lan ordaindua izatea bai hartzen da gizarteratzea lortzeko bitartekotzat, nahiz eta familia loturarik ez eduki (gizonei aplikatzen zaie).
- Gizarte bazterkeriaren diskurtsoetan ez zaio zeregin nagusirik ematen zaintzaren jarduerari eta ordaindu gabeko lanari (ez elkartasunaren diskurtso frantsesean, ez espezializazioaren diskurtso ingeles-amerikarrean, ez monopolioaren diskurtsoetan)<sup>12</sup>. Are gehiago, diskurtso ingeles-amerikarrean, lan merkatuan sartzeko aukerara mugatzen denez inklusioa, ordaindu gabeko lana eta zaintza lana gutxiesteaz gain, baztertu egiten dira.

Gizarte bazterketaren ikuspegiak eragin handia izan du azken bi hamarkadetan pobrezia neurtzeko egin diren metodologietan. Ikuspegi multidimentsionalak ohiko bihurtu dira, eta, hala, pobrezia ikuspegi monetarioa gainditu da. Adibidez, Europar Batasunaren azterketek, pobrezia monetarioaz gain, etxebizitzaren, osasunaren, lan baldintzen, adingabeen zaintzaren, hezkuntzaren eta parte hartze sozialaren inguruko alderdiak aztertzen dituzte (European Union, 2018).

Espainiako estatuaren kasuan, aipatzekoak dira Foessa Fundazioak egindako txostenak, bai oro har estatuari buruzkoak, bai autonomia erkidegoei buruzkoak (Foessa Fundazioa 2019a eta 2019b). Hiru integrazio ardatz hartzen dira kontuan: ekonomikoa (enplegua eta kontsumoa); politikoa eta herritartasunari dagokiona (politika, hezkuntza, etxebizitza eta osasuna); eta harremani dagokiena (gizarte gatazka eta gizarte isolamendua). 35 adierazleren bitartez, biztanleriaren gizarteratze/baztertze egoerak balioesten dira. Aipatutako txosten horretatik abiatuta, hainbat lan egin dira genero ikuspegia kontuan hartuta (Damonti, 2014). Zehazki, integrazioaren hiru ardatz nagusien genero desberdintasunak aztertzen dira, gizabanakoa eta etxea oinarritzat hartuta. Ondorioa da egiturek ardatz bakoitzean duten gaitasun integratzailea txikiagoa dela emakumeen kasuan. Lan merkatuaren ardatzean, esaterako, emakumeek gutxiago eta baldintza okerragoetan parte hartzen dutelako enpleguan. Ongizate Estatuaren ardatzean, emandako babes txikiagoa delako emakumeen artean, lan ibilbide laburragoak dituztelako eta etenaldiak izaten dituztelako. Eta harremanen ardatzean, gatazka sozialen (tratu txarrekin lotutakoak) eta isolamendu sozialen (familiaren babesik eza, batez ere adineko emakume alargunei eragingo liokeena) eraginpeko emakumeen ehunekoa handiagoa da.

#### 4. Pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko estatistiketan eta azterlanetan genero ikuspegia txertatzeko gomendioak

Adierazi bezala, desabantaila sozialaren azterketak aurrerapen garrantzitsuak izan ditu arlo teorikoan, batez ere dimentsio gehiago sartzeari dagokionez. Hala ere, ezin esan daiteke maila bereko bilakaera egon denik neurketen arloan. Kontzeptuen aberastasuna ez da beti ikasketa aplikatuetan islatu, kontzeptu horiek operatibo egiteko zailtasunak direla eta. Neurketaren arloan, beraz, arlo teorikoari buruz, atzerapen bat dagoela esan daiteke. Izan ere, analisi askok eta askok ikuspegi monetarioa dute oinarri nagusi.

Egoera horretatik abiatuta, genero ikuspegia txertatzearen ikuspegitik azterlanak eta analisiak hobetzeko gomendio batzuk bilduko ditugu. Neurketarako oinarri monetarioa erabiltzen duten ikerketa konbentzionalenak zein dimentsio anitzeko ikuspegiak erabiltzen dituzten ikerketa aurreratuenak aipatuko ditugu<sup>13</sup>.

12 Ordaindu gabeko lanari funtsezko zereginik ematen ez dion arren, monopolioaren paradigmak aitortzen du lan hori, eta, gainera, lan partaidetzatik haratago, gizarteratzea ere jasotzen du. Elkartasunaren paradigmak alde baina ez du aintzat hartzen ordaindu gabeko lana, eta kontuan hartzen du gizarteratzea, ordaindutako enplegu bihurtuz (Levitas, 1998).

13 Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi De la Cal (2009).

*Lehenik eta behin, arlo ekonomikotik haratago doazen ikuspegiak eta bizitzaren hainbat eremu kontuan hartzen dituztenek (hala nola etxebizitza, osasuna, parte-hartze politikoa eta soziala, gabezia materialak edo lan intentsitatea) gaitasun handiagoa izango dute pobrezia generoarekiko sentikorra den ikuspegitik neurtzeko. Hala eta guztiz ere, dimentsio anitzeko ikuspegiak erabiltzeak ez du bermatzen datuak genero ikuspegiak kontuan hartuta bildu eta ustiatuko direnik.*

*Bigarrenik, pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko estatistika eta azterlan batzuek ez dute sexuaren arabera bereizitako datuak ematen aztertutako dimentsio guztietan, nahiz eta, zorronez, gero eta gutxiago gertatzen den hori. Hala ere, kasu gehienetan, sexua ez da zeharkako aldagaia azterketetan. Horrek eragotzi egiten du sexuaren aldagaia beste batzuekin gurutzatzea, hala nola adinarekin, hezkuntza mailarekin, nazionalitatearekin edo lan egoerarekin<sup>14</sup>. Horren ondorioz, garrantzizko informazioa galtzen da. Eta informazio hori baliagarria izan liteke pobrezia aurkako politiken eraginkortasuna hobetzeko. Ez da gauza bera politikak diseinatzea emakume gazteentzat edo adineko emakumeentzat; prestakuntza maila baxua edo prestakuntza maila handia duten emakumeentzat; seme-alabak zaintzen dituzten emakumeentzat edo halakorik zaintzen ez duten emakumeentzat, etab. Eta gauza bera nabarmendu behar da gizonen kasuan ere. Beharrezkoa da adieraztea laginak ahal bezain zabala izan behar duela aldagaien arteko desagregazio eta gurutzaketa horiek posible izan daitezen eta datu esanguratsuak eman ditzaten.*

*Hirugarrenik, pobrezia azterketa eta neurketa gehienek etxea hartzen dute analisi unitatetzat, eta erreferentziako pertsonari egiten zaio horrela aipamena. Aurretik ere adierazi dugu horrek eragozpenak sortzen dituela diru sarrera propiorik ez duten edo diru sarrera nahikorik ez duten pertsonen pobrezia egoeren ikusezintasunari dagokionez, esate baterako bikotekidearekin bizi diren emakumeen kasuan. Etxearen arabera analisi (erreferentziako pertsona kontuan hartuta) eta banakako analisi bateratzea gomendatzen da, aipatutako Valls eta Belzuneguien azterketan (2014) egiten den bezala.*

*Laugarrenik, garrantzitsua da antzematea nolako ezintasuna duten emakumeek etxeko baliabideak eskuratu eta administratzeko, kide guztien beharrak asetzeko moduan. Ildo horretatik, beharrezkoa da neurketa tresnak baliatzea. Baliagarriak izan daitezke metodologia kualitatiboak eta baita miaketarako galderak ere, era horretara hurbildu ahal izango baita baliabideak eskuratzeko aukerak berdinak ez izatearen ondorioz sortutako arazoek duten eraginera<sup>15</sup>.*

Analisien planteamenduari, datuen lorpenari eta lortutako informazioaren aurkezpenari buruzko gomendio horiez gain, beharrezkoa da arreta jartzea generoaren ikuspegiak txertatzen duten pobrezia azterketan oso ohikoak diren eraikuntza teoriko batzuetan, bai eta pobrezia aurkako borroka politiken formulazioan ere. Zehazki, honako hauek aipatuko ditugu: pobrezia feminizazioa, emakumeen buruzagitzak duten familiak –bereziki babesgabeak direlako– eta ikuspegi intersektionala.

*Pobrezia feminizazioa indar handiko tresna izan da genero berdintasunaren alde, eta baliagarria izan da generoa pobrezia eta garapenari buruzko nazioarteko foroetan interesgune bihurtzeko. Denek uste dute emakumeak ekonomikoki ahalduntzea funtsezkoa dela genero berdintasuna lortzeko eta pobrezia aurka borrokatzeko. Hala ere, pobrezia feminizazioa kontzeptuak zenbait arrisku dakartza (Chant, 2003):*

- Nahasgarria da, polisemiaren ondorioz. Alde batetik, pobrezia feminizazioaren nozioa prozesu bati dagokio, emakumeen pobrezia denbora tarte jakin batean hazi izanari hain zuzen ere. Bestetik, egoera bati dagokio, emakumeek pobrezian duten gehiegizko ordezkartzari (Damonti, 2014).
- Pobrezia emakumeekin lotzen du, eta ez genero harremanekin. Politikak eta ekimenak emakumeei bakarrik zuzentzen zaizkie, gizabanako isolatuak balira bezala, eta ez genero harreman desberdinak aldatzeari.

14 Ikusi, adibidez, Eurostat (2018) edo kontsultatu INEren Bizi Baldintzei buruzko Galdetegia.

15 Bikotekidearekin bizi diren emakumeek baliabide partekatuek ez eskuratzearen arazoa hautematen saiatu da Euskadin egiten den Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan, eta galdetegian horri buruzko galdera bat sartu dute. Eta ondorioz ikusi da zenbat eta okerragoa izan etxearen egoera ekonomikoa, hainbat eta ohikoagoa dela baliabideak eskuratzeko aukera ez izatea partekatua (De la Cal, 2007).



- Emakumeengan jartzen du arreta, ez hainbeste eskubideak dituzten pertsona gisa, baizik eta familian duten zereginetan, batez ere, ama gisa duten rolean. Emakumeak helburu jakin batzuk lortzeko tresnatzat hartzen dira.
- Emakumeen ahalduntzea nabarmentzen du, garapenaren eraginkortasunerako bide gisa, eta ez emakumeentzako helburu gisa *per se*. Horrek "emakumeek garapenaren alde egindako politikak" sor ditzake, eta ez hainbeste "emakumeen aldeko garapen politikak".
- Ez du emakume taldeen arteko bereizketarik egiten.

*Emakumeen buruzagitza duten etxeak* (emakumeak buru dituzten etxeak edo guraso bakarreko etxeak), jakina, azterketetan ikus eta identifika daitezkeen taldeetako bat dira, pobrezia haien artean duen intzidentzia handiagatik. Baina, hori ukalezina bada ere, etxe horiek pobreen artean pobreenak direla pentsatzeak baditu zenbait ondorio arbuigarri (Chant, 2003):

- Ematen du emakumeen pobrezia etxe horietara mugatuta dagoela, eta hori ez da egia. Gainera, argudia daiteke etxe horietako pobrezia familia horien ezaugarri jakin batzuen ondorio dela, guraso bakarreko etxeak izatearen ondorio baino gehiago<sup>16</sup>.
- Familia horiek behe mailakoak edo arauari dagokionez bestelakoak balira bezala azaltzen dituzten diskurtsoak sustatzen dira.
- Era horretako etxeak diru sarrera maila guztietan daude, ez bakarrik maila apalenetan.

Estereotipo horiek eragotzi egiten dute generoari lotutako esperientzien aniztasuna jasotzea pobreziaaren aurkako politikak formulatzeko orduan. Horren aurrez aurre, *ikuspegi interseksionalak* adierazten du emakumeak ez direla kolektibo homoginoa, eta haien bizi baldintzak, aukerak, esperientziak, bizipenak eta abar oso bestelakoak direla. Desberdintasunek ez diete berdin eragiten emakume guztiei. Batzuek besteek baino eragin handiagoa dute, adinaren, arrazaren, sexu orientazioaren, gizarte mailaren, errenta mailaren, nazionalitatearen eta abarren arabera. Gainera, ikuspegi interseksionalak agerian uzten du, ekoizpen teoriko feministaren barruan, diskriminazio, diskurtso eta esperientzia jakin batzuk azpimarratzen direla (batez ere emakume zurienak, mendebaldekoenak eta burgesenak), eta beste batzuk, berriz, isildu egiten direla edo ikusezin bihurtzen direla<sup>17</sup>.

Ikuspegi interseksionalak zapalkuntza sistemen interakzioa eta interseksioa ikusteko aukera ematen du, eta orobat aukera ematen du ulertzeko eta kontuan hartzeko nola teilakatzen den generoa beste bazterketa ardatz batzuekin, beste bazterketa testuinguru, maila eta eremutan. Ikuspegi horretan, ez litzateke nahikoa izango generoak eragindako zapalkuntza egoerak soilik aintzat hartzea, existitzen diren dinamika hierarkikoak errepikatuko bailituzke horrek (adibidez, arrazaren, klase sozialaren, errentaren, sexu egoeraren, adinaren eta abarren arabera) (Cubillos, 2015).

Pobreziaaren eta gizarte bazterketaren fenomenoak aztertzean eta ulertzean, ezinbestekoa da, beraz, honako hau planteatzea, hainbat ikuspegitatik, baita bazterretatik ere: zer esan nahi duen pobrea izateak

16 Adibidez, 2020ko PGDIren datuen arabera, lan egonkorrik gabeko emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familien benetako pobrezia tasa % 32koa zen 45 urtetik gorako kasuan, eta % 49koa 45 urtetik beherako kasuan. Baina lan egonkorra duten guraso bakarreko familien kasuan, pobreziaaren intzidentzia oso modu esanguratsuan jaisten da (% 5,1 baino ez, baina gizonak buru dituzten guraso bakarreko etxeen unitateena baino handiagoa, % 3,3). Beraz, esan daiteke guraso bakarreko familien desabantaila ezegonkortasun egoera bati lotuta dagoela, eta ez horrenbeste guraso bakarrekoak izateari. Gainera, azterlan bereko datuen arabera, guraso bakarreko etxeen unitateak kasuen % 16,9 dira. Beraz, emakume pobre gehienak ez dira horrelako etxeetan bizi.

17 Ikuspegi interseksionalari dagokionez, teoria feministaren eta genero ikasketen analisiak eta ekarpenak aberasteko aukera eman du. Hala ere, ez dago kritiketatik salbuetsita. Horri dagokionez, Sales (2017) kontsulta daiteke.

edo baztertua izateak, zer dugun baliabidetzat, nork kontrolatzen dituen eta zer faktorekin (materialak eta ez-materialak) lotzen diren ongizatea eta ondoeza. Horretarako, ikerketa metodo kualitatiboen gaitasuna azpimarratu behar da, ikertutako pertsonen ikuspuntua eta bizi duten egoeraren definizioa kontuan hartzeko aukera ematen dutelako. Datuen bilketari (elkarrizketa irekiak, bitzta istorioak, eztabaida taldeak, talde fokalak, behaketa parte hartzailea) nahiz lortutako informazioaren azterketari (diskurtsoaren analisia, teoria oinarritua) egiten diote erreferentzia.

Horrek ez du esan nahi metodo kuantitatiboak baztertu behar direnik. Aurreko orrialdeetan adierazi dugu adierazleak, neurketak, galdetegiak eta abar, genero ikuspegitik behar bezala planteatuta, oso baliagarriak izan daitezkeela emakumeen artean pobrezia eta gizarte bazterketa neurtzeko eta horri buruzko politikak formulatzeko. Ibarrolaren lanean (2015), esaterako, bi metodoen konbinazio egokia egin da. Alde batetik, pobrezia Gasteizko emakumeen artean duen eraginaren eta haien profilen berri ematen da. Bestetik, pobreziaekin eta bazterketarekin lotutako alderdiak aztertzen dira, hala nola ahalduntzerik eza, estigma, errua, lotsa eta abar, zeinak baitiren ikuspegi kuantitatiboen bidez atzematen zailak. Horrek pobreziaaren aurkako politika konplexuagoak formulatzeko oinarriak ematen ditu, etxe pobreetara baliabide monetarioak transferitzetik harago doazenak.

## 5. Bibliografía

- Baeza, Andrea; Baeza, Pamela eta Victoria Ibaceta (2014) "La (s) pobreza (s) desde el género. Una aproximación a la realidad chilena actual." *Revista Punto Género* 4:83-105
- Bennett, Fran y Mary Daly (2014) *Poverty through a gender lens: Evidence and policy review on gender and poverty*. Department of Social Policy and Intervention. University of Oxford.
- Berghman, Jos (1995) "Social exclusion in Europe: policy context and analytical framework" en Room, Graham. (ed.) *Beyond the threshold*. London: The Policy Press.
- Brunet, Ignasi; Valls, Francesc eta Angel Belzunegui (2008) Pobreza, exclusión social y género, *Sistema*, 207: 69-85.
- Carrasco, Cristina (2014) *Con voz propia: la economía feminista como apuesta teórica y política*. Madrid: La Oveja Roja.
- CEPAL-UNIFEM (2004) "Entender la pobreza desde la perspectiva de género". *Serie Mujer y Desarrollo*, 52. zkia. Unidad Mujer y Desarrollo.
- Clert, Carine (1998) "De la vulnerabilidad a la exclusión: género y conceptos de desventaja social" in Arriagada, Irma eta Torres, Carmen (konp.) *Género y pobreza. Nuevas dimensiones*. ISIS Internacional. Santiago de Chile.
- Concialdi, Pierre (2002) Les seuils de pauvreté monétaire: usages et mesures. *Revue de l'IRES*, 38: 109-136.
- Cubillos, Javiera (2015) «La importancia de la interseccionalidad para la investigación feminista.» *Oxímora. Revista internacional de ética y política* 7: 119-137.
- Chant, Silvia (2003) "Nuevas contribuciones al análisis de la pobreza: desafíos metodológicos y conceptuales para entender la pobreza desde una perspectiva de género". *Serie Mujer y Desarrollo*, 47. zkia. Unidad Mujer y Desarrollo. CEPAL.
- Daly, Mary eta Saraceno, Chiara (2002) "Social exclusion and gender relations" en Hobson, Barbara et al. (ed.) *Contested concepts in gender and social politics*. Reino Unido: Edward Elgar.
- Damonti, Paola (2014). Una mirada de género a la exclusión social. Fundación Foessa,(4).
- De la Cal, M. Luz (2007) "Luces y sombras en las Encuestas de Pobreza y Desigualdades Sociales desde el punto de vista del género". *Zerbitzuan*, 42: 19-28.
- De la Cal, M. Luz (2009) "Avances metodológicos para el análisis y la comprensión de la desventaja social femenina." *Revista Internacional de Organizaciones*, 3: 29-47.
- Díaz, Capitolina eta Sandra Dema (2013) "Metodología no sexista en la investigación y producción del conocimiento". *Sociología y género*. Tecnos.
- Dubois, Alfonso (2000) *Diccionario de acción humanitaria y cooperación al desarrollo*. Hegoa.
- Eichler, Margrit (2013) *Nonsexist research methods: A practical guide*. Routledge.
- Espinar, Eva. (2002) "La violencia doméstica como factor de empobrecimiento" en Tortosa, Jose M. (koord.) *Mujeres pobres, indicadores de empobrecimiento en la España de hoy*. Foessa Fundazioa.
- Esquivel, Valeria; Eleonor Faur eta Elizabeth Jelin (2012). «Hacia la conceptualización del cuidado: familia, mercado y estado". In Esquivel, Valeria et al., *Las lógicas del cuidado infantil. Entre las familias, el estado y el mercado*. IDES, 11-43. or.
- Eurostat (2018) *Living conditions in Europe*. European Union.
- Fundación Foessa (2019a) VIII Informe FOESSA sobre exclusión y desarrollo social en España. 2018.
- Foessa Fundazioa (2019b) Informe sobre exclusión y desarrollo social en el País Vasco. Resultados de la Encuesta sobre Integración y Necesidades Sociales 2018.

- Gaba, Mariana Raquel eta Irene Salvo (2016). "Corresponsabilidad en el cuidado infantil y conciliación con la trayectoria laboral: Significaciones y prácticas de varones argentinos." *Psicoperspectivas* 15.3: 23-33.
- Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza (2008) *Encuesta de pobreza y desigualdades sociales*. Vitoria-Gasteiz: Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza (2020) *Encuesta de pobreza y desigualdades sociales*. Vitoria-Gasteiz: Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Hartmann, Heidi (1994) «Capitalismo, patriarcado y segregación de los empleos por sexos» in Cristina Borderías, Cristina Carrasco, Carmen Alemany (comps.), *Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales*, Fuhem/Icaria, Madril/Bartzelona, 255 eta 269. or.
- Ibarrola, Sara (2015) "La feminización de la pobreza en Vitoria-Gasteiz. El impacto de la crisis 2007-2014 en las mujeres". Vitoria-Gasteizko udala.
- Kabeer, Naila (1998) "Tácticas y compromisos: nexos entre género y pobreza" in Arriagada, Irma eta Carmen Torres (konp.) *Género y pobreza. Nuevas dimensiones*. Santiago de Chile: ISIS Internacional.
- Kabeer, Naila (2006) *Lugar preponderante del género en la erradicación de la pobreza y las metas del desarrollo del milenio*. Plaza y Valdés.
- Levitas, Ruth (1998) *The inclusive society? Social exclusion and new labour*. Londres: Macmillan Press.
- Littlewood, Paul eta Herkommer, Sebastian (1999) "Identifying social exclusion" in Littlewood, Paul (ed.) *Social Exclusion in Europe*. Ashgate. England.
- Martínez, Rosa eta Ruiz-Huerta, Jesús (1994) "La pobreza en España ¿qué nos muestran las encuestas de presupuestos familiares?". *Documentación Social*, 96. zkia., 15-109. or.
- Menéndez-Espina, Sara et al. (2020) "La perspectiva de género en los estudios sociales y académicos: ¿hemos construido un conocimiento sesgado y ciego a las mujeres?". *Mujeres e inclusión social: Investigación y estrategias de innovación y transformación social*. Red Europea de Lucha Contra la Pobreza y la Exclusión Social en Asturias (EAPN-AS).
- Monreal, Pilar. (1999) ¿Sirve para algo el concepto de cultura de la pobreza?. *Revista de Occidente*, 216: 75-88.
- Nussbaum, Martha (2000) "Women's capabilities and social justice." *Journal of human development* 1.2: 219-247.
- Pérez Orozco, Amaia (2014) "Del trabajo doméstico al trabajo de cuidados", en Carrasco, Cristina, *Con voz propia: la economía feminista como apuesta teórica y política*. Madril: La Oveja Roja: 49-74.
- Razavi, Shahra (2007) *The political and social economy of care in the development context. Conceptual issues, research questions and policy options*. Gender and Development Programme. Paper N°1. Geneva. UNRISD.
- Rodríguez Enríquez, Corina Maria (2015). «Economía feminista y economía del cuidado: Aportes conceptuales para el estudio de la desigualdad.» *Nueva Sociedad*, 256:30-44.
- Room, Graham (1995) "Poverty and social exclusion" en Room, G. (ed.) *Beyond the threshold*. The Policy Press. University of Bristol.
- Sales, Tomeu (2017) "Repensando la interseccionalidad desde la teoría feminista." *Agora: papeles de Filosofía* 36/2: 229-256.
- Sen, Amartya (1983) *Poor, relatively speaking*. *Oxford Economic Papers*, 35: 153-169.
- Sen, Amartya (1992a) *Nuevo examen de la desigualdad*. Madrid: Alianza.
- Sen, Amartya (1992b) *Sobre conceptos y medidas de la pobreza*. *Comercio Exterior*, 42, (4): 310-322.
- Townsend, Peter (1993) *The international analysis of poverty*. Harvester Wheatsheaf. London.
- Valls, Francesc eta Angel Belzunegui (2014) *La pobreza en España desde una perspectiva de género*. Foessa Fundazioa.

- 1. Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
- 2. Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
- 3. Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 4. Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eziguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 5. Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 6. Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 7. Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 8. Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 9. XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
- 10. Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
- 11. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- 12. Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
- 13. Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
- 14. Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
- 15. Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
- 16. Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informazioa. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
- 17. Txina: Garapen ereduaren birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria.** Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.

- 18.** Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
- 19.** Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 20.** Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa1, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Análisi Ekonomikoko Saila, EHU.
- 21.** Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona Garapenari alternatibean bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
- 22.** Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
- 23.** Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertze gakoak. M<sup>a</sup> Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.

